



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKIZA Udal-Info 5.0.

2015ko martxoaren 13

HONDAKINEN KUDEAKETA.

Orain arte egindakoaren azterketa eta ebaluazioa

(2015ko urtarrilaren 21ean Herri Bileran azaldutakoaren laburpena)

INPRESIOAK

Bileran, ezer baino lehen, inpresioak partekatu genituen, batez ere errefusaren edukiontzia erabilerari buruz. Hasteko, argazki batzuk erakutsi genituen non ikusten den argi asko zuetako edonork hilabete hauetan hondakin edukiontzi guneetan ikusi ahal izan duena:

- edukiontziak gainezka;
- barruan denetik nahastuta (plastikoa, papera, beira, organikoa, ...);
- poltsa eta zaku handiak sarri asko;
- edukiontzien alboan lurrean denetik botata;
- edukiontzietan usaina;
- ...


Bestalde,

- Konpost-gune komunitarioak ez direla asko erabiltzen ematen du.

DATUAK

Baina, inpresioetan ezin gaitezkeenez geratu, ondoren datu zehatzak ere aurkeztu genituen. Alkizako hondakinen kudeaketa plan berria martxan jarri zenetik hona, aldaketaren emaitzak kuantifikatzeko, Tolosaldeako Mankomunitateak Alkizako errefusaren edukiontzien karakterizazioa egin zuen 2014ko azaroan. **KARAKTERIZAZIOA:** edukiontzi horretan aste betez jaso den gutzia hartu eta zehatz-mehatz zer den begiratzea, zenbatzea eta pisatzea.

Karakterizazioaren emaitzak ondorengoak dira (errefusaren edukiontzian):



- Organikoa: %28
- Beira: %4
- Papera eta kartoia: %4,5
- Ontzi arinak: %9,5
- **Errefusa: %38,5**
- Bestelakoak: %2,2
- Hildako animaliak: %13,3

Grafikoan ikusten den bezala, errefusako edukiontzian aurkitu denaren **erdia baino gehiago birziklatu daitekeen hondakina da**. Horrek esan nahi du, birziklapen portzentajea handitu den arren, alkizarrok oraindik asko hobetzeko daukagula, **asko nahastuta botatzen delako**.

Bestalde, Anoetara aldeko gunea, batez ere, desastre bat bihurtu da. Kanpokoan erruaren aukera bere neurrian baztertu gabe (garbigunea itxita, Anoetako atez atekoa, ...), argazki batzuetan erakutsitakoa argi uzten du zikinkeria ardua nagusia geurea dela eta ez beste inorena, alkizarrok sortzen dugun kuxidatea dela. Edo, hobeto esanda, alkizar batzuk sortzen dutena, beste askok hondakina arretaz bereiztu eta dagokion lekuan botatzen baitute.

Beraz, Udaletik gogorarazi nahi dizuegu, ondorengo orrialdean zehazten den baliabide eta zerbitzuak dituzela hondakinen kudeaketa egokia egiteko: hondakin mota bakoitzarentzat bere edukiontzia daukagu (konpostagailuetan bostgarren kontenedorearen parekoa ere bai). Beste gauza bereziagoentzat ere jasoketa motak antolatu dira Frontoi alboko ekarpen gunean.

Hori guztia etxetik gertu 3 guneetan eta erabat **libre**: ordutegi mugaturik edo kontrolik gabe. Gauza bakar baten truke: **ERANTZUKIZUNA** -> bereiztu + dagokion eran uztearen **ardura**.

Orain dela urte bete eta aurretik, Alkizan hondakinen kudeaketa sistema egokitzeari buruz hitz egiten hasi ginenean, eztabaida sutua zegoen inguruan eta geurera ere iristen zen hitz potoloak erabiliz ezarri nahi omen ziren obligazioa, kontrola, inposizioa eta abar kritikatu. Alkizan hautatu genuen sistema ez zeuzkan horrelako ezaugarririk baina **ZORITXARREZ**, emaitzei begiratuta ondorioa argia da: **EZ dugu hitza bete**, helburua betetzetik urruti gaude.

Zoritxarrez diogu, emaitzek “Ardura edo Obligazioa” ardatzera eramaten gaituelako berriro.

- **Ardura**: behar den bezala bereizi eta ondorioz edukiontziak libre eta irekita mantendu
 - organikorik ez edukiontzietan
 - birziklatzekoak ezta errefusaren edukiontzian
- **Obligazioa**: hainbat sistema daude baina, azken finean, edukiontziak kontrolatuta
 - edukiontziak kendu, aldatu, itxi, giltzarekin edo txiparekin, ...

Beste herri batzuetan egiten ari direna jaso eta horietako hainbat aukera aztertuta dauzkagu. Beraz, gure esku dago orain ere aukera, Alkizako bizilagun guztion esku, eta ez da zaila!!!

DIRU KONTUAK

Ondoren, zerbitzu honengatik Udalak herritarrei ezartzen dien tasaren eta Mankomunitateari egiten dio ekarpenen berri eman zen. Lehendabizi, azken 10 urteetako eboluzioa zehatz-mehatz erakutsi zen, non ikusten den izugarrizko defizita izaten genuela (2004ean % 67,50). Ondorengo urteetan defizit horrek jarraitzen du baina tasa igoera politika progresibo baten bidez berdintzera iristen gara, 2013an defizit-arik gabe bukatu arte. Zoritxarrez, 2014rako Mankomunitateak ekarpenean igoera itzela aurreikusten zuen (% 24: 26.300€tik 32.500€tara). Herri txikien insistentziari esker Mankomunitateari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko sistema aldatzea lortu genuen: bakoitzak erabiltzen duen zerbitzu zehatza ordaindu dezan!

Aldaketa horren ondorioz, dagoeneko 2014ko ekarpenean sistema berria aplikatu da: 4 multzo bereiztu dira: industria, atez atekoa, Tolosa-Andoain eta **landa eremua**, eta bakoitzean 2 zati: **finkoa** (azpiegitura orokorra, edukiontzien arabera) eta **aldakorra** (jasotzen denaren arabera).

Kalkulu berriarekin eta soterratuak kenduta sortu da bigarren errezioboaren **%50 gutxitzeko** aukera. Baina hasieran erakutsi ditugun datuekin ezinezkoa izango da gehiago edo berriro tasa jaistea, horretarako gaizki botatzen duguna zeharo murriztu behar dugu. Eta tartea badago!